

# AURKEZPENA

Canvaseko 9 atalak gure enpresa proiektuarekin lotu aurretik, gure negozio ideia azalduko dugu.

Klasean brainstorming-a egiten ari ginela, konturatu ginen batzuetan zakarrontziak oso azkar betetzen direla, eta horren ondorioz zakar poltsak ontziaren kanpoaldean uzten direla. Hori aldatzeko zerbait egitea erabaki genuen. Orduan, arazo hau konpontzeko hainbat ideia eman genituen, eta azkenean, azaldu behar dugun ideia aukeratu genuen, gure ikuspuntutik aproposena zelako.

Gure arazoa zakarrontziak oso azkar betetzen direla da eta, ondorioz, zakar kamioia ia egunero jasotzera pasa behar dela da.



Horregatik, soluzio bat bilatzen saiatu ginen:

Gure ideia zakarrontzi berri bat sortzea da. Zakarrontzi hauek birrintzaile bat izango dute hondoan eta pisua dagoela antzematean, martxan jarriko da, dagoen zakarra trituratzeke asmoz. Modu honetan, zakar kopuru gehiago sartu ahal izango da eta kamioia gutxiago pasa beharko da. Udaletxea

eta hainbat enpresa (Sasieta, adibidez) dirua aurreztuko zuten.

